

TXATEKO LAGUN EZKUTUA

Iritsi dira udako oporrak! Bukatu dira azterketak, proiektuak ... Eta orain hurrengo bi hilabeteetan nahi duguna egingo dugu! Bueno, nahi duguna parentesi artean, zeren irakasleak emandako lan guztiekin ... Arnasa hartzeko ere ez dugu denborarik izango: 5 eguneroko; gazteleraz hiru ipuin; eta gainera matematika lodia bukatzea, eta hori erdia baino gehiago falta zaigula bukatzeko, ez dakit kurtso honetan zer egin dugun. Nola liteke erdia baino gutxiago egitea?

A, ia ahaztu zait nire burua aurkeztea. Nire izena Miren da, eta Bilbon bizi naiz. Ni alaba bakarra naiz, eta hemen jaio nintzen. Baina nire aita, jatorriz, Estatu Batuetakoa da, eta aurren, hango aitona-amonei bisita bat egitea pentsatu dute. Bertara kruzero batean joango gara. Irrikatan nago.

Iritsi da eguna, gaur abiatuko gara. Nire maletan, soinekoak, galtza motz batzuk, bainujantziak, nire kontsola, liburu bat, oraindik bukatu gabe dudako liburua... sartu ditut. Eta gainera nire urtebetetze egunean oparitu zidaten mugikor berria.

Egun hauetan, txatez mutil bat ezagutu dut. Berak, 12 urte ditu eta oso mutil goapoa da. Oin ederrak eta koloretakoak omen ditu ... hori esan dit behintzat.

Nik, bera konkistatu nahian, gezur txiki batzuk ere esan dizkiot: ile horia eta luzea dudala, Taylor Swift baino politagoa naizela ... eta horrelako gauzak.

Atlantikoan bizi omen da eta koordenadak bidali dizkit. Arraro xamarra, ezta? Irla batean edo itsasontzi batean biziko ote da? Hori ez dut argitu, baina ez zait axola.

Irten gara, bagoaz itsasontzian. Txikia da, baina salbamendu txalupak baditu.

Gero eta urduriago nago! Gerturatzen ari gara koordenatu horietara! Prestatu ditut gauza guztiak joateko, iritsi da momentua.

Egunguentia da, eta denak lo daude. Nik, isil isilik txalupa bat hartu eta uretara salto egin dut, salbamendu txaleko bat jantzita.

Txalupa kolpeagatik hondoratzen hasi da. Beldurtzen hasi naiz, eta itsasontzikoei oihu egin diet, baina ez didate entzun.

Itsaso zabalean bakarrik geratu naiz. Nire itxaropen bakarra nire mutila salbatzea etortzea da, baina ez da inor ageri. Zer egin behar dut!

Halako batean, lurra ikusi dut eta harantz abiatu naiz.

Arroka baten gainean ikusi dut, gizon sirena bat, pelikano batekin kartetan jolasten.

- Aizu neska, ikusi al duzu neska guapa bat, Taylor Swiften antza duena? Bere zain nago eta.